

# BIZIRAUTEN

Kafearen usaina, ez da usain soila; zaporedun usaina da. Unibertso oso bat, atmosfera bat, bakearen eta lasaitasunaren biosfera. Zentzumenek zentzua galtzen duten une majikoa da bazkalostea; eta Bixenta eta Anek begirada konplizeekin dastatzen dute kafearen ordua. Kafeinaren otordua.

Baina gaurkoan, baketik gutxi dauka lasaitasun une honek. Tentsiogune lasai batean murgildurik aurkitzen dira ama-alabak, gaur Aneri jazo zaionagatik. Gutxienez, Maddi txikia siestan aurkitzen da eta parez-pare hitz egiteko aukera izango dute.

Ane, lanetik bidali dute. Kanporatu egin dute. Maddi alabatxoa gaixo jarri da ikastolan eta andereñoak lantokira hots egin dio bere bila etorri dadin. Nagusiarengana bere alabatxoaren bila joateko baimen eske hurbildu denean, hark ondoko gela batera eraman eta hala bota dio:

- Joaten bazara, ez itzuli.

Zur eta lur gelditu da Ane gajoa. Dibortzio gogor haren ostean, 4 hilabete soilik zeramatzan lanean lantoki berrian; praktiketako soldata eskas baten truke. Bere benetako ordainsaria, soldata duinik ezean; bere lankideekin tertulian hartzen zuen kafe goxo hura zen, txorakeriatz eta telebistako txutxumutxuei buruz hizketan; munduko benetako arazoetatik ihesi.

Baina hori guztia bukatu da. Nagusiari ez zaio gustatu antza, sukarrak jota dagoen bere alabatxoaren bila joan behar hori. Benetan gaixo dagoena, bere nagusia dela otu zaio uneren batean Aneri. Dena den, hark bere erretolikarekin jarraitu du:

- Ane, zure dibortzioaren ostean aukera berri baten bila etorri zinen, eta nik eman nizun. Baina ez zara eskatzen nizkizun zenbakietara iritsi eta gainera, hirugarren aldia da motibo beragatik alde egin beharrean zarela. Zure kasuan, aukera zena oztopo bilakatzen ari zara... esaten dizudana: joaten bazara, ez itzuli berriro.

Anek, begiekin erantzun dio. Negarrez, bere jaka hartu eta kalera irten da. Zenbakiak baino, letrak maiteago dituela esan dio bere buruari eta zehazki; bost letra: M-A-D-D-I, hizki haiek dira bere munduaren erdigune gaur egun.

Bixenta bere amari azaldu dio istorio guztia Anek, kafea hozten den bitartean. Bixentak, bere nagusiaren jarrera deitoratu ostean, apal-apal hitz xumez zeozer gehiago gaineratu nahi izan du.

- Denbora gutxian bigarren lana da galtzen duzula, Ane...dibortziatu ez bazina gutxienez, dena hobeto joango zitzaizun!!

Nagusiaren hitz lehorrek baino min handiagoa egin diote bere amaren hitzek. Kolpatu egin dute Aneren bihotza hitz gogor horiek eta erabat bere senetik kanpo kafearen kikara eskuan indartsu eutsiz, kontraerasora pasatu da.

- Egin behar nuena egin dut!! Eta pizzeriako beste lan hark, duintasunetik gutxi zuen... Agian, biderik zailena aukeratu dut, baina nire bidea da. Gainera, zuk ere nire aita bere garaian bakarrik utzi zenuela uste dut, ezta?

Mina hartu du Bixentak, oroimena oroimin bihurtu zaionean. Beti sentitu izan du bere burua epaitua besteengatik baina bere alabaren ahotan ez zituen hitz horiek sekula entzuterik espero.

- Gainera, aita politika kontu txoro batzuegatik utzi zenuela esan didate beste osaba-izebek... eta niri kontu eske etortzeko adorea duzu oraindik?

Begiak itxi bezain laster, iragana ikusi du Bixentak. 21 urteko neska gaztea da orain, ezkonberria eta haurdun; eta etxeko lanetan ari da. Eta senarrak eta berak partekatzen duten logelan bere gizonaren aldeko mesanotxeko partera iritsi denean, goiko tiradera zabaldu eta kaxoiko hautsak garbitzen ari dela; falangisten propaganda ikusi du, “Burkide maite hori” esaldiarekin hasten den gutuna ondoan duela.

Mundua gainera jausi zaio; eta bera belauniko lurrera jausi da. Senarra, bere maitale eta konplizea eta laster erdituko duen alabaren aita, beti izan du apolitikotzat, inoiz ez du politikari buruz txintik esan eta horrexegatik; are eta gehiago maitatu izan du.

Baina maskara erori zaio. Agian, betidanik eraman izan du maskara garden bat bere senarrak, baina ez da atzean ezkututzen zen faxista ikusteko gai izan.

Eta Bixentak, badaki ezingo lukeela halako gizon batekin elkarbizitzen pasa bizitza oso bat.

- Ongi zaude ama? Oso zurbil ikusten zaitut...- itaundu dio bere alabak, ahots xumez. Bere gorroto guztia jada joan da, ziur asko, bere amaren begietan ikusi duen tristurak kolpatua.

Maddiren oheko negarrek moztu dute bi emakumeen arteko ikamika.

- Ni joango naun, lasai...-eskeini du bere burua Bixentak, alabak esker oneko begirada bat igortzen dion bitartean.

Besoetan eta kantuan ekarri du Bixentak bilobatxoa egongelara, bere alabaren ondoan utzi eta beste kafe bat prestatzera abiatu da sukaldera. Alabak jarabea prestatua dauka Maddirentzat eta ematen saiatu da. Lau aldiz saiatu arren, aurpegia paretik kentzen du alabatxoak eta giroa berotzen hasi da.

- Azkeneko aldiz esango dizut, Maddi!!

Bixenta amonaren atentzioa erakarri dute garrasiek, bere onetik aterata baitago Ane alaba. Izan ere, Maddi biloba eztarriko minez aurkitzen da eta ez du amak emandako sendagairik hartu nahi. Behin eta berriz ari zaio 5 urteko Maddiri jarabearen goilara hartuarazi nahian baina ezinezkoa zaio.

- Zure onerako da, Maddi!! Segundu bat, hartu eta kitto; berriro jolastera...- saiatu da enegarren aldiz alaba limurtzen.

Sofatik lurrera bota du guztiz bere burua Maddik. Hasperen egin du amak, nekatuta. Bixentak amultsu sorbaldatik heldu dio Aneri eta “lasai, nik emango zionat” batekin lasaitzen saiatu da, egongelatik aldegin dezan goxoki gonbidatzen duen bitartean. Ez dio birritan esan beharrik izan, kirioak jota baitago alaba.

Lurrean luze-luze auspez etzanda dagoen bilobari zuzendu zaio Bixenta. Eskua bere buru gainean pausatu eta behatzekin ilean kili-kili egiten hasi zaio. Ilea motz-motza darama Maddik, atzo moztu zioten; ikasgelan zorriak dabilzalako antza. Irri triste batekin, bilobari hitz egin dio.

- Ze ile motza daramazun, Maddi!! Nik ere, behinola, horrela eramane nuen...txintxo portatzen bazara, argazki bat erakutsiko dizut.

Azkar eman du buelta Maddik eta itzulipurdi pare baten ostean, 89 urteko amonaren besoartean goxoki egokitu da. Jarabeak, oraindik egongelako mahai urrunean jarraitzen duela ziurtatu ostean, Maddik “eta argazkia?” xuxurlatu dio amonari. Amonak, inguruari begiratu urduri bat bota ostean, armairuko goiko apaleko txokorik ezkutuenetik txuri-beltzeko argazki bat atera du. Berriro atera begiratu du alaba zelatan ez dagoela ziurtatzeko, eta Maddiri erakutsi dio.

Bertan, oraindik nerabe ere ez den Bixenta hura ageri da; ilea motz-motza eta bi gizon armatuz inguratua, militarrez jantziak. Irribarre

triste bat jaiotzen da Bixentaren ezpainetan, bai argazkian eta baita egongelan ere. Argazkiko bi gizonak, Falangearen banderarekin batera gogor oratzen dute Bixenta.

- Ilea mozteaz aparte, niri ere sendagai txar bat hartuarazi zidaten, Maddi; gaixo jarri ninduen – esan dio ahopeka bilobari.
- Gizon hauek gaiztoak ziren, amona?
- Bai, eta ez dakizu zenbaterainokoak...

Hain gaixo jarriarazi zuten Bixenta, kaka goitik behera egiten hasi zela “ricino” olioaren ematen zioten bakoitzean. Eta egoera tamalgarri hartan, herritik pasiatzen zuten beste denek ikus zezaten zer zetorkien gainera.

Baina hori ez dio kontatu bilobari. Ez luke ulertuko. Ez luke ulertuko zer den gerra bateko biktima izatea, zer den errurik gabe kondenatua izatea eta batez ere, emakumea izate hutsagatik zapalkuntza handiago baten menpeko izatea.

“Eskerrak noizbait aldegin zuten eta bizirik utzi ninduten” pentsatu du berehala. Beste askok ez zuten zorte bera izan, bere aita eta anaia nagusiak; esaterako. Haiek, gauaren iluntasunean eraman zituzten eta berriro ez zituen bizirik ikusi.

Jarabea emateko ahalegina egin du berriro Bixentak, baina unearren majia hautsiz; berriro uko egin dio bilobak. Bera ere, txuri-beltzeko iraganeko garai haietan ukatu zen bezala. Azkenean, bera, alaba eta biloba hain ezberdinak ez direla otu zaio.

Hirurek partekatzen dute zerbait: bizirauteko sena. Maddi bere nortasuna garatzeko prozesuan dago, alaba amatasunean itotzen da noizbehinka eta bera, oroitzapenetatik ihesi dabil oraindik. Maddik eztarriko mina dauka, alabak eztarrian korapilo bat eta Bixentaren mututasuna, ozena da entzun nahi duenarentzat.

Ane sartu denean, jarabea ematea lortu al duen galdetu dio amonari. Honek, “bai” xume batekin erantzun dio; hark sinesteko modurik ez duen “bai” batekin.

Eta bizitzen jarraitzea bera ere, kafe goxo bat partekatuz ospatzeko motiboa dela erabaki du Bixentak. Bizitzeko ere, bizirauten ikasi beharra dagoelako lehenik, eta kafe beltzaren eran, batzuetan mingotsa eta gogorra izanagatik ere gero bizitzako alde onen zaporeak dastatzen irakasten dizulako. Ama-alabek beste kafe bat hartu dute, isiltasunean.

Bere iraganarekin konpontzeko sendagaiaren zatitxo bat hartu du amonak berak ere. Agian, noizbait azalduko dio alabari, esaten ez diren hainbat kontu gordin, ezintasunak egositakoak izaten direla sarri.

## IRAGANA